

I. Ikuskapen eta Kontrol Plana jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020 aldirako.

Jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeak, Nafarroako ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak eta bien garapen araudiek barne hartzen dituzte bertan zehaztutakoak ez betetzeagatik egindako legez kontrakoei ezarritako arau-hauste eta zehapenak.

Erreparatuz esku-hartze publikoa sustatu eta elikatu behar duten jarduketa printzipioei, kasurako, interes orokorrak erdiesteko objektibotasunari, jarduketan behar den eraginkortasun eta efizientziari, administrazioen arteko lankidetzeta eta kooperazioari (Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikulua eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikulua), nahitaezkoa da alor hauetako kontrol, ikuskapen eta zehapen prozesuen koordinazioa eta planifikazioa antolatzea Ikuskapen eta Kontrolerako Plan baten bidez. Plan horrek eskumen hauen gauzapena egituratu, bideratu eta antolatu beharko du, erdietsi beharreko helburuak definituz, helburu horiek eskuratzeko behar diren ekintzak ezarriz eta ebaluazio mekanismoak inplementatuz. Horrekin lortzen dena da ez soilik esku-hartzeak orientatzea eta ordenatzea, baita ere, Administrazio baliabideak erabiltzea erauzteko herritarrendako eta interes orokorrendako kaltegarrienak diren jokabideak edo garrantzi zein eragin juridiko, sozial edo ekonomiko handiena dutenak. Horrela, esku-hartze publikoarekin, pertsuasio eta prebentzio efektu bat lortzen da oro har eta, bereziki legez kontrakoak egin baino lehen.

Departamentuak 2015-2019 legegintzaldirako dituen helburu eta lan ildoen artean dago, Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Nafarroako Parlamentuan azaldu zuen gisan, zezen ikuskizunak egiten diren instalazio guztiak ikuskatzeko plan bat egitea epe labur eta ertain batean, zuzenean pertsonen segurtasunari eragiten dioten gabeziak atzeman eta zuzentzeko xedearekin.

Proposatzen den ikuskapen eta kontrol planak bere baitan hartzen du konprometituriko helburua, eta asmo handiagoak ere baditu. Tresna ezin baliagarriagoa da. Bertan, zenbait jarduketa definitzen dira, modu sistematiko eta koordinatuan, batetik, jokoaren eta apostuen alorreko legez kanpoko jarduerak erauzteko asmoz, jarduera horiek fede onez parte hartu duten pertsonendako iruzurrezko egoera ekar ditzaketenean eta, bestetik, pertsonen osotasun fisikoa eta segurtasuna bermatzeko asmoz, arriskuan jartzen ahal denean ikuskizun eta josteta jardueren berezko ezaugarriengatik edo gauzatu diren areto eta instalazioen baldintzengatik.

Ikuskapenaren helburu nagusia da proaktiboki esku hartzea definitutako gaietan izandako ustezko arau-hausteen aurrean, horien jarraipena eta finkapena eragotziz, eta esku hartzeko lehentasunak aginduz eta esleitzuz. Hala ere, horrek ez du esan nahi bazter uzten denik jarduketa programetatik kanpo egiten diren salaketan, eskaeren edo erreklamazioen trataera eta horiek plan hau ezartzeko prozesuan sartzea, aurretik kontuan izanda, betiere, larriak ote diren eta non kokatzen diren plan honek ezarritako lehentasunen sailkapenean.

Osagarri gisa, tresna honek informazio hau eman beharko dio Administrazioari: egungo araudiak ezarritako eskakizunak zenbateraino betetzen diren eta gaurko errealitateari egokitzen ote zaizkion, atzematen diren gabeziak zuzendu ahal izateko eta, hala dagokionean, bidezkoak diren zehapenak eta neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Plan honek herritarren parte-hartzeko prozesu bat izan du, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu baita 2017ko martxoaren 2tik apirilaren 2ra bitarteko aldian, herritarren ekarpenak, iradokizunak eta iritzia jasotzeko asmoz. Ez da ekarpenik jaso.